



2013ko martxoaren 25a

2011ko urriaren 17an Euskal Herriko Gatazkaren Konponbiderako Nazioarteko Konferentzia burutu zen Donostian. Bertan, Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusi ohia den Kofi Annan buru zuen nazioarteko ordezkariak esanguratsuz gain, euskal eragile sozio-politiko gehienek hartu zuten parte. Konferentzia horren emaitza gisa, Aieteko Adierazpen gisa izenpetzen dena eman zen ezagutzera. Aieteko Adierazpenean, nazioarteko eragileek ETAREN jarduera armatuaren amaieraren ostean burutu beharreko elkarrizketa eta negoziazio prozesurako deia egin zuten. Egun gutxitara, ETAK bere erabakia ezagutarazi zuen, gatazkaren arrazoi nahiz ondorioei erantzuteko aukera historikoa sortuz.

Agertoki berri honek, ETAREN behin betiko jarduera armatuaren amaieratik 12 hilabete baina gehiago pasatu direnean, gatazkaren konponbide politikoan aurrera egiteko aurrerapausoak behar ditu. Salbuespenezko neurriei amaiera emateko ordua da. Neurri horiek alferrikakoak izateaz gain, kaltegarriak izatera pasatu dira. Jarduera armatuaren amaierari bake justu eta iraunkorrerako baldintzak sortzen lagunduko dioten neurri politikoekin erantzun behar zaio.

Guzti horregatik, Nazioarteko Ekimen honen sinatzaile eta sustatzaileok, autoritate espainiar eta frantsesei, bake prozesua kontsolidatu ahal izateko, ondorengo neurriak hartzeko eskatzen diegu:

- Euskal presoek aplikatutako neurri arbitrarioa den dispertsio politikaren amaiera, eta euren familietatik gertu dauden kartzeletara gerturatzea.
- Espainiar auzitegiek 197/2006 Doktrina (Parot Doktrina gisa ere ezagutua) aplikatu dieten presoek askatzea eta baldintzapeko askatasunerako neurriak aplikatuz askatuak izan daitezkeen presoek kaleratzea.
- Gaixo larrien eta indarrean dagoen legediari jarraituz, euren gaixotasunetik tratamendu egokiak jasotzeko aske geratu beharko luketenen berehalako kaleratzea.
- Arnaldo Otegi eta alderdi politiko, sindikatu, gazte erakunde, mugimendu sozial eta komunikabideetan garatutako jarduera politiko edo iritzi politikoagatik atxilotutako pertsona guztien berehalako kaleratzea. Kausa horien artxibatzea eta izaera bereko delituengatik europar atxilotze aginduen deuseztatzea.

Gaurko lehentasuna, elkarrizketarako espazio politikoaren eratzeak izan behar du eta ez polizia eta justiziaren aldetik ohikoak diren prozeduren erabilera.

Bakea eraikitzeko garaia da, giza eskubideetan, justizian, egian eta gatazkak iraun duen birtartean sufrimendua jasan duten guzti horien erreparazioan oinarritutako etorkizuna eraikitzeko garaia da.



Bill Bowring

Marjorie Cohn

Piedad Esneda Cordoba Ruiz

Padre Alberto Franco

Javier Giraldo Moreno

Peter Madden

Nelly Maes

George Mavrikos

Nora Morales de Cortiñas

Essa Moosa

Alexander Moumbaris

Michael Tubiana